



EAJ-PNVren Egitasmoa 2011ko Hauteskunde Orokorrak

AURKIBIDEA

MADRILEN EUSKADIREN ALDE LAN EGITEN

ERRONKA HANDIAK IZANGO DITUEN LEGEGINTZALDIA

1. Hazkunde jasangarri eta iraunkorrerako eta enpleguaren sorrerarako politika ekonomikoa.
2. Euskadiren interesen defentsa, birzentralizatzeko dagoen tentazioaren aurrean.
3. Ongizatearen Ekonomiaren eta politika publikoen aldeko apustua .
4. Bakea eta normalizazioa . Bakea orain.

KRISIALDITIK IRTETEKO ETA EUSKADI ERAIKITZEN JARRAITZEKO LEHENTASUNAK

1. Ekonomia lehiakorrerako politika industrialia.
2. Enpleguaren sorrera ahalbidetuko duen lan harreman sistema .
3. Gizarte politika aurreratuak eta jasangarriak.
4. Hurbiltasun eta jasankortasun irizpidetik kudeatutako azpiegiturak.
5. Finantza sistema ona, gizartearen zerbitzura.
6. Ekonomiaren eta aurrekontuen egonkortasuna.
7. Ingurumenarekiko bateragarria izango den garapena.
8. Eskubide eta askatasunen errespetu gorena eta aurrerapena.
9. Europar gobernantza indartzea.
10. Europar kanpo politika eta nazioarteko solidariotasuna.

EUSKADIRENTZAKO ESTATUS POLITIKO BERRIA

MADRILEN EUSKADIREN ALDE LAN EGITEN

Euzko Alderdi Jeltzalea 1977 urtetik izan da Madrilen Euskadiren interesak defendatzeko ahotsa.

Azken 34 urte hauetan aurrerapen eta lorpen handiak eta baliabide ugariak erdietsi ditugu gure Herriarentzat. Eskumenak negoziatu ditugu, inbertsioak erakarri ditugu eta gure nortasun berezia eta gure eskubideak defendatu ditugu. Madrilen Euskadi defendatu dugu eta defendatzen jarraituko dugu. Euskal hiritar garen aldetik Euskadiren etorkizuna erabakitzeke dugun eskubidea defendatuta eta krisialditik irteteko eta enplegua sortzeko proposamen eraikitzaileak eginda, hori bata gure beste lehentasun handia.

Iragan legegintzaldian 1.265 milioi euro ekarri ditugu Euskadirako. Hauxe da lortutako transferentzia, diru laguntasun eta inbertsio guztien balorazio ekonomikoa. Legegintzaldiko egun bakoitzeko ia milioi euro bat.

Gauza materialez gain, “foruaz” ere arduratu izan gara, gure Herriaren eskubideen defentsaz. Lehenengo eta behin, euskal autogobernua zabaldu dugu, eta hori da Euskadirentzako ongizatea dena. Transferentzia berriak lortu ditugu eta Kontzertu Ekonomikoaren babesa lortu dugu eta horrekin euskal autogobernuaren giltzarria ezarri dugu. Gainera, Euskadiren partehartzea lortu dugu ECOFIN Europar Batasuneko Gai Ekonomiko eta Finantzarioen Batzordean, eta hortik Euskadik gai horren inguruan dituen interesak defenditu ahal izango ditugu.

Euskadirentzako inbertsio estrategikoak lortu ditugu, besteak beste euskal Y trenbidea egiteko egitasmorako inbertsioak mantentzea; Pasaiako Badiaren garapena eta bere onera ekartzea; Bilboko itsasadarreko portuak beren onera ekartzea; E.S.S. edo Neutroi bidezko Espalazio Iturria; sektore gainerakorren garapenerako zentro estrategikoak egitea, besteak beste Nanogune, nanozientzia eta nanoteknologiarako dugun apustu estrategiko punta puntakoa eta Basque Culinary Center.

Lau urteotan Euskadira 18 eskumen berri ekartzea lortu dugu, besteak beste, “historiko” jo ditugun batzuk; hauek dira :

- ❖ Enplegurako Politika Eraginkorrak, 472 milioi euroko balorazio ekonomikoarekin, hau da, oraingo Eusko Jaurlaritzak eskatutako balorazioa baino kopuru handiagoa. Oraingo Eusko Jaurlaritza 300 milioi eurotan onartzeko prest zegoen.
- ❖ B+G+i eskumena.
- ❖ Gure autobideen kudeatzea.
- ❖ Lortutako 18 hauen arteko besteak dira Lan Ikuskaritza, Espetxeetako Irakasleak eta Osasun langileak. Erljio irakasleak, EAEn kokatuta dauden Ikastetxe atzerritarretako tituluen konbalidazioak eta unibertsitatez kanpoko atzerriko tituluak, Lanaren Arauketa, Itsas eta Ibaiko garraioa, Errepide garraioa, Estatuko titulartasuneko Agiriak, Jabetza Intelektualaren inguruko estatuko legea betearaztea, Itsas -arrantzako irakaspen profesionalen zerbitzuen eskumenak zabaltzea, Autobideak, Farmaziako produktuak eta Turismo Agentziak.

Bestelako lorpen handiak izan dira euskal Teknologi Zentroek Kooperazio Ikerketa Zentroek eta Unibertsitateek sustatutako B+G+i egitasmoetarako jaso diren diru laguntasanak; gure atunontzien defentsa; Abiadura Handiko Trenerako inbertsio erritmoa berreskuratzea; Euskadin Petronor moduko enpresak mantentzea eta beren jarduera zabaltzea; Euskadirentzat telefonia mugikorrerako banda zabaleko frekuentzia berria esleitzea; gure herrialde historikoen izendapen ofiziala aitortzea; Ertzaintzaren erretiratzeke adinaren berdintzea; edo euskal

Telekomunikazioen merkatuko Batzorde Nazionala, Energiaren Batzorde Nazionala edo Posta Batzordea moduko erakunde arautzaileetan euskal ordezkariak berreskuratzea.

“ Forura” itzulita, gure taldeak legegintzaldi honetan birritan defenditu du autodeterminazio eskubidea. Lehena izan zen 2010eko uztailan aurkeztu zen Ebazpen Proposamenaren bidez, eta bigarrena 2011ko abuztuan Konstituzioaren Erreformari eginiko Zuzenketaren bidez.

Azken finean, Madrilgo EAJ-PNVren Euzko Abertzaleak taldearen konpromisoa eta eguneroko jardunaren emaitza izan dira Euskadirentzako eta euskal hiritargoarentzako fruitu eta onura handiak lortzea.

ERRONKA HANDIAK IZANGO DITUEN LEGEGINTZALDIA

Amaitu berri den legegintzaldia, denbora luzean gogoratuko dugu krisialdi ekonomiko larria izan zen legegintzaldia den moduan. Ekonomiak baldintzatu izan du eta ekonomia ere izango da, zoritzarrez, hurrengorako pauta markatuko duena.

2011-2015 legegintzaldian izango dugun testuinguru latz honetan, EAJ-PNVn pentsatzen dugu 4 erronka handi izango ditugula, horiek guztiak Euskadirentzako funtsezkoak:

1. Berreskuratze ekonomikoa eta krisialditik irtetea.
2. Euskadiren interesak birzentralizatzeko tentazioaren aurrean .
3. Ongizatearen Ekonomiaren eta politika publikoen aldeko apustua, garapen eta gizarte kohesiorako tresna gisa.
4. Bakea eta normalizazioa. Bakea orain.

Hazkunde jasangarri eta iraunkorrerako eta enpleguaren sorrerarako politika ekonomikoa.

Espainiar estatuaren oraingo egoera ekonomikoa jasanezina da. Langabeziari dagokionez, Europako langabezi tasa handienarekin: 5 milioi langabe eta %21eko langabezi tasa. Beste alde batetik, defizit publiko oso altua da eta Zapateroren Gobernuaren kudeatze arduragabearen eraginez BPGren %11ra iritsi zen 2009 urtean. Defizit hau gutxitzeko presioa Estatura ez ezik, indar handiagoz eraman da autonomi erkidegoetara eta toki erakundeetara; eta ondorioz murriztu behar izan dira zerbitzu publikoak. Egin behar izan ziren egokitzapenak gogorrekin, planifikazio egokirik gabe 2010eko maiatzetik aurrera espainiar ekonomia interbenitua izateko arriskuan egon da, eta arrisku horretan mantentzen da.

Hala eta guztiz ere, Euskadin krisialdiaren ondorioak bestela agertu dira Estatuarekin alderatuta, eta hala islatu da adierazle nagusietan. Gure langabezi tasa espainiar batz bestekoaren erdian kokatzen da eta gure zor publikoa beste autonomi erkidegoetakoa baino txikiagoa da era nabarmenean. Krisialdiaren ondorioak arintzeko gaitasuna neurri handi batean datorkigu Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoa ondo kudeatzetik, horixe baita oinarritzko tresna eta gure autogobernuaren zutaberi nagusienetakoa, eta bestetik azken 30 urteotan EAJ-PNVk garatutako politika ekonomikotik. Funtzionatzen duen eredia, hazkunde ekonomikoa eta enpleguaren sorrera ahalbidetzen du. Zorroztasunez, seriotasunez, aurreikuspenez kudeatutako administrazioa. Aurrekontuaren oreka printzipioetan oinarrituta, zorra era neurtuan erabilia eta beti ondorio onuragarriak ekarriko dituzten inbertsioak egiteko.

Hala eta guztiz ere, autogobernu egoeran ere, argi izan behar dugu Espainiar Estatuaren politika ekonomikoak era nabarmenean eragiten digula. Eragin hau gure enpresek nabaritzen dute, estatuko merkatuaren atzerapena pairatzen dutelako, maileguaren jarioa murriztu den finantza merkatuan finantzatzeko beharra dute eta kontratazioa errazten ez duen araudia duen lan merkatuan jardun behar dute. Eta, gure erakundeei ere eragiten die, Espainia markak suposatzen duen herri-arriskuak eragiten dielako.

Espainiar estatuak 2011-2015 legegintzaldian erreforma ekonomiko handiak egin beharko ditu, bereziki enplegua sortzeko jardura ahalbidetzeko. EAJ-PNV aurreko legegintzaldian egin izan duen moduan, zorroztasunez eta arduraz arituko da eta krisialdi ekonomikoa gainditzeko proposamenak eskainiko ditu. Gure esperientziaz gain eskainiko dugu Euskadi bere garapen eredura eraman duen politika sozio-ekonomikorako eredia.

Euskadiren interesen defentsa, birzentralizatzeko dagoen tentazioaren aurrean

Krisi egoerari eta espainiar eredu ekonomikoaren hazkundeari gehitzen zaio Estatu ereduaren krisi politiko sakona, eta honek handiago egin ditu Espainiar estatuak defizit, ezeraginkortasun eta xahutze terminotan dituen arazo ekonomiko eta finantzario larriak.

Estatu autonomikoak ziklo bat bete du eta hori ageri-agerikoa da. Aldaketak antzematen dira eta inork ez daki zer nolako norabidea hartuko duten; baina ikus daiteke egitura eta funtzionamendua eredu zentralizaturako bidean jartzeko dagoen borondatea eta apustua.

Krisialdi ekonomikoa boterea birzentralizatzeko eta autonomi estatuaren berdintzerako aitzakia legez erabiltzeko arriskuan aurkitzen gara. PPK gobernaturako autonomi erkidego batzuek zabal-zabalik planteatu dute Estatuari eskumenak itzultzea. Ezbaia komunikabideetan zabaldu da. Eta jarrera hauek inguru politiko hori ideiez hornitzen dituzten pentsamolde foroen abal teoriko eta doktrinala dute beren alde. PSOEren aldetik Diputazio Probintzialak ezabatzea proposatzen da eta estatuko erakundeetarako Autonomi Erkidegoek hirigintza arloan dituzten eskumen batzuk berreskuratzea proposatzen dute. Duela urte batzuetara arte autonomi ereduaren balantze ona egiten bazen ere, autonomi eredu berrezarpen demokratikoaren ostean ezarritako erregimenaren lorpena zelakoan hartzen bazen ere, gaur egun da sistemaren beraren arazorik nagusienetakoa.

EAJ-PNV birzentralizatzeko tentazio horrek Euskadiri eragitearen kontra dago. Bere egunean "denentzako kafea" formula zitala onartzen ez genuen helburua baitzen Herri dugun nortasuna eta singularitasuna ezabatzea; orain ere ez dugu onartuko kontrako norabidean eta helburu bera izango duen mugimendua- Autonomi Erkidego batzuetan eredu ez eraginkorrak garatu badituzte, behar besteko erreformak egin beharko dituzte beren hiritargoari oinarrizko zerbitzu publikoak kalitatea eta berdintasun irizpidea kaltetu gabe ematen jarraitzeko (bereziki hezkuntza eta osasuna). Baina hori ez da Euskadiren kasua, zerbitzu aurreratuak kudeatzearen bikaintasunarekin uztartu dituelako eta jasangarritasuna sektore publikoaren planifikazio eta kudeatzerako irizpide oinarrizkotzat ezarri duelako.

Beste alde batetik, EAJ-PNVk ezinbesteko jotzen du autonomi erkidegoek europar erabaki esparruetan parte hartzea eta, beraz, orain arte egin izan duen moduan ekimenak bultzatu eta planteatuko ditu Euskadiren presentzia Europar Batasunaren erabaki markoan bermatzeko. Halaber, Europar Kontseiluaren Arztejarau eta Erabakiak hartzeko prozesuetan gure erabakitze eskumena urratua ez izateko lana egingo du. Eta zoritzarrez, EAJ-PNVk hainbatetan salatu behar izan du hau aurreko legegintzaldian.

Ongizatearen Ekonomiaren eta politika publikoen aldeko apustua

Europa eta bereziki Espainiar Estatu eragiten ari den krisialdia aitzakia legez erabiltzen ari dira jarrera neoliberalak Ongizatearen Estatu zalantzan jartzeko orduan.

EAJ-PNVk agerian utzi nahi du politika publikoekiko duen osoko konpromisoa, eta bereziki hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuekiko duen konpromisoa, horiek direlakoan garapen eta gizarte kohesiorako funtsezko tresna. Kohesiorik gabeko garapena jasangarria ez delako. Politika publikoek eraginkortasun klabea hobetu ahal eta behar direlako, baina beren helburuak galdu gabe, bereziki pertsona ahulentzako aukera berdintasunean eta babes alorrean.

Euskal autogobernuak eta EAJ-PNVk erakundeetan gauzatu duen kudeatzeak funtzionatzen duen zerbitzu publikoen eredu eraikitzea ekarri digu, eta horretan sakondu beharra dugu. Zaintzen eta bultzatzen jarraitu behar ditugun balore propioekin. Lana, ahalegina, solidariotasuna, berrikuntza eta kalitatea eta berrikuntza moduko balore partekatuak dira. Gizarte irabazlearen baloreak dira, etorkizunera begira dagoena, oinarrizko duintasun maila duten bizitza mailak sendotzeko. Prest gaude Estatuarekin eta Autonomi Erkidegoekin eredu arrakastatsu hau partekatzeko, baina beti eskatuko dugu gure eskumen eta balore propioekiko begirunerik gorena.

Bakea eta Normalizazioa. Bakea Orain

ETA bortxakeria asmo politikoarekin erabiltzen duen erakunde gisa sortu zenez geroztik, EAJ-PNV betidanik saiatu izan da terrorezko eta giza eskubideak etengabe bortxatzeko jardunari amaiera eman ziezaion.

Zalantzarik gabe eta iluntasunik gabe adierazi izan dugu hau gure barruko agiriotan: Baina, batez ere, bortxakeriaren gaitzespenetik eta deslegitimazio sozial eta politikotik harago, frankismo garaian zein ibilbide demokratikoan, EAJ-PNVk bere ahalegina jarri du gure herrian bake iraunkorra erdiesteko bideak bilatzean.

Ez dugu ahaleginik edo sakrifiziorik aurreztu gure gizartea min eta sufrimendu alferrez bete duen gatazka konpontzearen. Horretarako elkarrizketa bideak arakatu ditugu eta bakearen ongi gorenera hurbiltzeko akordio politiko eta sozialak ahalbidetu ditugu. Ajuria Eneakoa moduko hitzarmenak; zuzeneko harremanak, Lizarra-Garazin egindakoak bezalakoak, eta azken momentuotan Loiolako elkarrizketetan egindakoak, eta azken instantzian Aieteko Konferentzian.

Gu ez gara porrotez eta frustrazioez damutzen. Haiengandik ikasi dugu bortxakeriaren zulo beltzaren amaierako argia ekarriko diguten alternatibak aztertzen joateko. Ez du preziorik ez kontra-ordain politikorik. Bakea bakearen truke. Hori da konponbidearen giltzarria.

Orain, ETArekin amaieratik inoiz baino hurbilago garen eta ETAk bere ekimen armatuaren behin betiko amaiera iragarri duen une honetan, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du Euskadiren bake eta normalizazioa bilatzen jarraituko duela. Zalantzarik gabe, honek izan behar du bakearen legegintzaldia. Baina baita normalizazioarena, adiskidetzearrena eta elkartasunarena. Bakea orain. Bakea orain eta behin betiko.

KRISIALDITIK IRTETEKO ETA EUSKADI ERAIKITZEN JARRAITZEKO LEHENTASUNAK

EAJ-PNVk X. legegintzaldirako planteatzen du 4 erronka hauei erantzuna ematean oinarritutako ekimen politikoa. Herria garen aldetik ditugun eskubideak aldarrikatzeko alderditik, eta EAJ-PNVk gobernu ardurak izan dituen erakundeetan gizarte ongizatea mantentzeko duen beharra mantentzeko gogoarekin. Baina baita lankidetzaren arduratsua gorenarekin, berreskuratze ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bermatzeko neurriak hartu ahal daitezkeen eta Euskadiren interesak gorde daitezkeen.

Zentzu honetan, 10 lehentasun planteatzen ditugu krisialditik irteteko eta Euskadi eraikitzen jarraitzeko helburu bikoitza ahalbidetu behar ditugutenak:

1) EKONOMIA LEIHAKORRERAKO POLITIKA INDUSTRIALA.

Ez dugu partekatzen “ politika industrialik onena da existitzen ez dena” ezartzen duen ideia . Estatuan politika industrialik egon denean ere, esparru honetan eman diren aurrerapenak oso apalak izan dira, epe luzearako estrategiarik gabe eta bat-batekotasun neurri handi batekin. Aurreko motore ekonomikoa –eraikuntza - eraitsia izan ondoren, Gobernu zentrala “ ekonomia jasangarria” hartu du gure arazo guztiak konponduko dituen ikurtzat. Baina, inolako zehaztapenik egin gabe eta etorkizunerako eredu sektorialerako bidean urrats serioerik eta koherenterik eman gabe.

Bien bitartean, datuak egoskorra dira. Espainiar merkataritza balantza oso defizitarioa da. 2010ean esportazioen baloreak BPGren % 17,7 suposatzen zuten, euro guneko herrialdeetako bataz bestekoaren oso azpitik dagoen portzentajea, hau da % 33. 2010 urtean BPGren %14 baino ez zen eman B+G kontzeptuan, eta 2009koa baino inbertsio baxuagoa egin zen. Honek suposatzen du B+Gan inbertitutako euro bakoitzeko, Estatuak lau euro inguru ordaintzen ditu jaulkitako zor publikoaren stock-agatik.

Enpleguak gora egingo badu erakundeetatik babestutako ekonomia lehiakorra behar da. Ez da nahikoa zerga handiagoko epe laburrerako politika ezartzea, diru gehiago biltzeko helburuarekin eta epe luzearen aberastasuna sortzeko politika ekonomikoa ezarri gabe. Euskadik erakutsi egin du epe luzean lan egingo duen politika industrialerako eredu sendoarekin, egingarriak direla enplegu, aberastasun eta ongizate mailak igotzea. Arrakasta eredu honen lehen estrategikoei jarraiki, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- **Politika sektorialak.** Krisian dauden industria sektoreak onbideratzea eta sektore terminotan eta erregio terminotan orekatua egongo den berrindustrializazio politika eraginkorra. Hazkunde bidean dauden sektoreak garatzea, ikerketa eta garapenari babes eraginkorra emanez.
- **Nazioartetzea.** Politika industrialak argitasun osoz norabidetu beharra dago sektore produktiboen eta enpresen nazioartetzerako, eta ekonomia zein zerbitzutan emandako babes nahikorekin.
- **B+G+iren aldeko apustu irmoa.** B+G+I kontzeptuko gastuak haztea europar 25 erregio garrantzitsuenen mailara iritsi arte, hauek % 3 a gainditzen baitute inbertsioetan; aldi berean B+G+i hori gure produkzio ehunean aplikagarriago egiteko xedez norabidetzea. Halaber, lortutako emaitzen inguruko ebaluazio zorrotza egitea, aplikatutako politikak norabidetzeko eta aurreko finantzaketan jarraipena aztertzea.
- **Nekazaritza-arrantza sektorea babestea.** EAJ-PNVk gure nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza sektoreen eta lehen sektoreari lotutako transformazio sektoreen

modernizazioa defendatzen jarraituko du. Nekazal Politika Batuaren erreforma ere mehatxua izan daiteke gure produktoreentzat, eta gauza bera gerta daiteke Arrantza Jasangarriaren inguruko arautze europarrarekin. Beraz, lan egiten jarraituko dugu sektorearentzat baldintzarik onenak lortzeko helburuarekin. Gure produktuen defentsan ere jarraituko dugu, txakolinaren kasuan egin izan dugun moduan.

- **Enpresa txiki eta ertaina, autonomoak eta hiri-merkataritza babestea.** ETEak, autonomoak eta hiri merkataritza indartzeko laguntasunak ematea, finantza ikuspuntutik, berme sistemak artikulatuzetik, kudeatze sistemak hobetuzetik, egokitzapen teknologikotik eta merkatu berrietan sartzeko ahaleginetik abiatuta eta arrisku eta mozkinak partekatuta.
- **Gizarte Ekonomia laguntzea,** nazioarte esparruan krisialdi ekonomikoaren enbateri aurre egiteko gogortasun handia erakutsi du. Euskadiko kooperatiben adibidea arrakasta praktika da eta kontuan hartu beharreko eredu da.
- **Lehiakortasuna.** Espainiar ekonomiako sektore esanguratsuak, oraindik daude lehiakortasun orotik urrun, bereziki zerbitzu arloan, eta presentzia publikoaren ingurua osatzen dutenak. Sektore hauek merkatu globalaren lehiakortasunera sartu behar dira al bait arinen, eraginkorragoak izan daitezten eta nazioartetxeak kalitate, prezio eta kontsumitzaile-bezeroari ematen zaion arretaren inguruan exijitzen dituen erantzunak emateko moduan jar daitezten.
- **Talentua erakartzea.** Gure apustua da ezagutza eta berrikuntzaren generazio eta erabilpenean oinarritutako gizartearena. Horretarako, ezinbesteko gertatzen da kualifikazio handia duten europar gazteentzako helburu bilakatzea, bertan lana aurki dezaten; era berean, helburu izan behar dugu bikain prestatuta dauden eta gaitasun handiak dituzten gure gazteentzako aukera interesgarriak eskaintzea.

2) ENPLEGUAREN SORRERA AHALBIDETUKO DUEN LAN HARREMAN SISTEMA

Zapateroren Gobernuak garatu izan duen politika ekonomiko penagarriaren eraginez krisi ekonomiko eta finantzario globalarekin batera, Espainiar estatuak du herri garatuen arteko langabezi tasarik handiena.

Gizarte eragileekin adostu gabe diseinatu diren lan erreformek ez dute balio izan estatuko lan merkatua dinamizatzeko. Lanaren gaineko legeriak (Langileen Estatutua, negoziaketa kolektiboa, Lanbide Heziketa, eta abar) osatu behar du krisialditik irteko lege marko egokia. Errezetak ezin dira orokorrak izan eta lege markoak esparru geografiko edo sektorial bakoitzaren errealitate eta ezaugarrietara egokitua behar du izan.

Edozein kasutan, EAJ-PNVren aldetik marko sendoa aldarrikatzen dugu ardurak enpresa eta langileen artean partekatzeko eta etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egin dezan, enpleguaren egonkortasunaren alde eta eskasietatik urrun. Zalantzarik gabe, enpresek tresna eta malgutasuna izan behar dute beren produktuen eta zerbitzuen eskarrietara egokitzeko, baina aldi berean, enpleguaren sorkuntza eta egonkortasunarekiko konpromisoa hartu behar dute. Hori dena, enpresei babesteko politikekin batera. Dena dela, ez dugu ahaztu behar fenomeno geldoa izango dela langabezi mailak beheratzekoa.

Hurrengo neurri hauek proposatzen ditugu esparru honetan:

- **Enpleguaren eta Garapen Ekonomikoaren aldeko ituna.** Biziberritze ekonomikoak eta enpleguaren sorrerak gizarte sektore guztien arteko lankidetzaren Itun zabala behar dute. Ardatz nagusi gisa enplegua sortzea hazkunde handiagoa ahalbidetuko duen ekonomia lehiakorragotik abiatzea izan dadin. Itun honek gai honetan eskumenak izango dituzten erakunde guztiak eta eragile ekonomiko- sozialak hartu behar ditu eta aurrera egin behar du enpleguaren egonkortasunean, lehiakortasuna sustatuta eta soldatak lehiakortasunari uztartuta, enpresak lehiakorragoak izan daitezten.

- **Lan harremanetarako marko propioa.** Zentzu honetan, EAJ-PNVren aldetik argi daukagu Euskadik autogobernurako borondate eta eskubidea ez ezik , horretarako gaitasun ekonomikoak ere badituela hazkunde eta produkzio ereduari dagokionez eta Estatuan daudenekin alderatuta; beraz, lan harremanetarako marko autonomo propioa eskatzen dugu gure lan merkatua era eraginkorrean eta euskal enpresen eta ekonomiaren zerbitzura kudeatzeko.
- **Enplegu Politika Eraginkorren modernizazioa,** kuotengatiko hobariei , lanbide heziketari edo diru laguntasunei lotutakoak baino, beste formula malguagoak bilatuta.
- **Gazte enpleguari lehentasuna.** Ez ditugu onartzen gazteak etengabeko prestakuntzan eta 30 urtera arte lan eta soldata prekarioan dauden pertsonak bilakatu nahi dituzten neurriak . Eskola porrotean erori diren eta kualifikazio eskasa duten gazteei laguntzeko neurri bereziekin batera, “ prestakuntza bekak” emateko politika proposatzen dugu, gazteei teknologikoki garatuen dauden herrialdeetan eta ikerketa institutu sofistikatuenetan prestakuntza emateko , eta ahal den neurrian bekadun estatusa , estatus profesionalarekin uztartzearekin jarraituz. Europar Batasunak finantzaturako ikerkuntza eta berrikuntza teknologiko egitasmoetako parte hartzean gazte kuotak ezarrita.
- **Lanbide Heziketa eredu berria.** Lanbide Heziketa sakonean modifikatzea, kontratu bikoitza sartzearen bidez, iruzurrik egin gabe lana eta prestakuntza uztartuta.
- **Babes handiagoa langabezi egoeran dauden pertsonen.** Langabezi egoerarako babes kopurua mantentzea proposatzen dugu, baina iraupena bikoiztuta, Segurtasun Sozialaren kontingentzia da eta gaurko egunean kaudimena duen sistema publikoa dago. Izaera unibertsaleko babes ratioetara hurbildu beharra dugu, gutxienez langabezi kronikoen kasuetarako eta lan merkaturatzea oso konplexu eta gaitz ematen den kasuetarako.
- **Lan autonomoa bultzatzea,** langile autonomoak babesteko sistema, besteren baten kontura ari diren langileen sistemarekiko konbergentzia handiagoa, Pentsio Sistemak babestutako kontingentziei dagokionez.
- **Kontratu formulak sinplifikatzea eta lanaldi erdiko lana bultzatzea.** Espainiar estatuan gaur egunean dauden kontratu mota ezberdin ugariak ez dute argitasunik edo eraginkortasunik eskaintzen lan merkatua dinamizatzeke orduan. Lanaldi erdiko kontratua bultzatzea, egun osoan lan egiterik ez duten edo nahi ez duten pertsonen artean lana sortzeko formula eraginkorra dela ikusi da.

3) GIZARTE POLITIKA AURRERATUAK ETA JASANGARRIAK .

Gizarte politikak dira EAJ-PNVren lehentasunetako bat. Gure gizartearen egiazko beharrezanean erantzungo dieten gizarte politikak eta jasangarritasun eta eraginkortasun printzipioetan oinarrituko direnak. Esparru honetan, honakoak proposatzen ditugu:

- **Euskadira pentsioen eskumena ekartzea.** Pentsioen Sistema Publikoaren esparruan, EAJ-PNVk oraindik aldarrikatzen du eskumen hori Euskal Autonomi Erkidegora ekartzea, Gernikako Estatutuan Segurtasun Sozialaren erregimen ekonomikaren kudeaketaren inguruan ezarritakoa betetzeko xedez. Estatuaren arabera erregimen hau Kontzertu Ekonomikoaren erregimenaren parekoa da.
- **Pentsioen erosahalmena mantentzea.** Pentsiodunek ezin dituzte murrizketa publikoak jasan. Errespetatu eta hobetu behar dira pentsioen erosahalmena bermatzeko tresnak, oraingoa moduko inguruabarretan barne.
- **Alarguntsa, alargun eta aurre erretiratutako pertsonen pentsioak.** EAJ-PNVk hitza ematen du talde hauen bien egoeraren aldeko lana egiten jarraituko duela, Pentsioen Sistema Publikoa arautzeko legeriak kendu egin baitizkie kotizaziokoak izateagatik horiek jasotzeko eskubidea zuten arren.

- **Gure eskumenak eta gure hezkuntza eredua errespetatzea**, bereziki euskarak hezkuntzan irakas-hezkuntzarako duen balorea defendatuta
- **Hezkuntza eredu egonkorra**. Ez da bidezkoa hezkuntza legeria Gobernu Zentralaren kolorearekin aldatzea, LOE legea mantentzearen aldeko jartzen gara, baina ulertzen dugu Gobernuak orain arte egindako garapenak ez dituela autonomi eskumenak guztiz errespetatu eta guk garapen legeri horren norabide aldaketa aldarrikatzen dugu.
- **Euskal Curriculum-a defendatzea**, euskal hezkuntza erkidegoak aho batez hitzartu duen legez.
- **0 eta 2 urte bitarteko Hezkuntza**. Unibertsalizaziorako bidean aurrera egitea eta 0 eta 2 urte bitarteko hezkuntza sisteman integratzea
- **Unibertsitatea**, Gure unibertsitateen nazioartetzearen eta Boloniako arteztarauetan behar den moduan sartzearen aldeko apustu irmoa. Horretarako, beharrezkoa da unibertsitateen autonomian sakontzea, beren erabaki estrategikoak planifikatzeko orduan ; era berean, finantzaketa handiagoa ere behar da, guztion artean, Bolonia erronkak bikaintasuna lortzeko exijitzen duen ikasle/irakasle ratioa betetzeko, euskal kanpusak nazioarteko kanpus bilaka daitezten eta beren eskaintza zabalak europar bestaldeko ikasleak erakar ditzan, unibertsitateek beren artean inoiz baino gehiago lehiatzen diren mundu honetan.
- **Osasun arloan, bete gabe dauden eskumenen transferentzia**. Osasun prestakuntza berezia, bajak eta lan ezgaitasunen osasun kontrola eta kanpoko osasuna. Halaber, Eusko Jaurlaritzak botiken prezioak onartzeko , erregistratzeko eta finkatzeko erakundeetan parte hartzea.
- **Beste autonomi erkidegoetan bizi diren pertsonen emandako zerbitzuengatikoa kopuruen ordainketa**. Autonomi erkidegoen arteko berme sistema ezartzea, pertsona orori dagoen tokian osasun zerbitzua emateko eta aldi berean zerbitzua ematen duen osasun sistemari ordainketa bermatzen zaion bitartean. Zentzu honetan, EAEk jaso gabe du oraindik Osakidetza 2007 urtetik beste autonomi erkidegotan bizi diren pertsonen emandako osasun arretagatikoa konpentsazio ekonomikoa.
- **Estatuak Euskadirekin Mendekotasun Legearekiko dituen konpromisoen betepena**. Zalantzarik gabe, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonalerako lege famatua (Mendekotasun Legea) berraztertua eta berregituratua izan behar da. Gaur egun, onartua izan zenetik bost urte geroago, lege honek finantzaketa zailtasun ageriak ditu. Autonomi Erkidegoek eta EAEn kasuan, Foru Aldundiak dira lege honetatik eratortzen diren laguntasunak kudeatzeko ardura dutenak, baina finantzaketa % 50ean dago Estatuko Gobernuarekin. Une honetan ez dira portzentaje hauek errespetatzen eta Aldundiek % 70aren gastuari egin behar diote aurre, horrek suposatzen duen desorekarekin.
- **“ Gaixotasun arraroen” kasuan ikerketa eta prestazio gehiago**.
- **Desgaitasuna duten pertsonen lan integrazioa**. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideetarako Nazioarteko Hitzarmena eta Administrazio Pubikoetan desgaitasuna duten langileak integratzeko portzentajeen oraingo legeria betetzea da kontua. Gainera, gure Legebiltzar Taldeak ekin egingo dio- aurreko legegintzaldian Lege Proposamenaren bidez egin zuen moduan- desgaitasuna duten pertsonen kupoia igotzeko beharrari eta derrigor hau betetzeko bermeak ezartzeko beharrari.
- **Berdintasun politikak**. Euskadi, EAJ-PNVren eskutik, berdintasun politiken bultzatzaile aitzindaria izan da. Zentzu honetan, gure gizarte garapenerako gai estrategiko honetan atzera pausuak ekiditeko dugun konpromisoa mantentzen dugu eta emakumeen profesionalizazioaren ikusgarritasunaren alde, soldata ezberdintasunak kentzeko eta ko-arduran aurrera egiteko.

4) HURBILTASUN ETA JASANGARRITASUN IRIZPIDETIK KUDEATUTAKO AZPIEGITURAK

Inongo garapenik ez dago, integrazio sozial edo territorialik ez dago, hiritarren bizitza kalitaterik ez dago, era guztietako eta ingurumen aldetik era jasangarrian programatutako azpiegitura zabalaren oinarrian eraikitako gizartetik kanpo. Azpiegiturak, modalitate guztietan, 2.0 edo digital izena daramatenak dira kontzeptu hau osatzen dutenak.

EAJ-PNVk sinesmen horretan oinarrituta garatu izan du bere jardura politikoa, euskal esparru propioan erakundeek arlo honetako eskumenak izan zituzten unetik beretik eta era berean gure azpiegiturak hartzen dituzten esparruen osotasunean.

Dena dela, ez da lortu EAJ-PNVren Euzko Abertzaleak taldeak azpiegitura arloan bilatu izan duen guztia. Lortzeko eta hobetzeko gauzak geratzen dira oraindik, azpiegituren sorrerari dagokionez, eta hauen kudeaketaren arloan. Historiak ustezko planifikazio handiez beteta dago, aurkezpen arranditsuak egin dira, baina orientabide eskasa izan dute betearazpenean eta arbitrariotasuna eta alderdikeria izan dira nagusi presio talde batzuen aldetik. Garraio azpiegiturak ezin dira trakerako moneta gisara erabili ezta autonomia zehatz baten truke ematen den kalte ordain modura eman, are gutxiago oraingoa moduko krisian.

Beharrezanetara egokitutako planifikazio zehaztua exijituko dugu, dauden baliabideak ondo erabili eta hobetuta, Euskadirentzat Europarako, eta ondorioz, mundu osorako komunikazio egokia bermatuko duen ikuspegi globalarekin. Egin den garapena modukoarekin, Europako periferiaren alderdi "okerrean" geratzeko arrisku larriari gaude. Azken legegintzaldi bietan, eta bereziki IX. Legegintzaldian agerian geratu dira ezeraginkortasun eta efikaziarik eza. Krisi ekonomikoaren etorrerak erakutsi egin du Estatuko Administrazio Zentralak arbitrariotasun eta baldarkeriz kudeatu duen garraioak planifikatzeko eta kudeatzeko sistema ez dela batere jasangarria, eta EAJ-PNVk behin eta berriz esan duen moduan, oinarriko planteamenduetatik eginiko berrikuspena behar du. Horregatik, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- **Azpiegitura sistema goitik behera zehaztea.** Espainiar estatuak EAJ-PNVren aburuz premiaz ekin behar dio azpiegiturak planifikatzeko eta kudeatzeko sistema birdefinitzeari. Lortu behar diren helburuen arabera planifikazioan oinarritutako sistema. Azpiegiturek planifikatuak eta kudeatuak izan behar dute zerbitzua ematen dieten pertsonak eta enpresak erreferentzia puntutzat hartuta. Hortik abiatuta, horretarako zerbitzuak zeintzuk diren ezarri behar da eta amaitzeko azpiegitura berriak diseinatu behar dira edo daudenak modifikatu behar dira aurretiaz ezarritako helburuak lortzearren. Beti, egiazko eskari zenbagarriaren irizpidearen arabera, eta ingurumen, ekonomia eta gizarte jasangarritasun printzipioari erantzunez.
- **Europa zeharkatzen duten sarean sartzea.** Estatuko garraio sistema Europa zeharkatzen duten sareetan sartzea azpiegitura berrietarako eta daudenak hobetzeko planifikazioaren oinarri gida gisa ezarri beharra dago. Honi dagokionez, EAJ-PNVk ulertu egiten du egokitzapen horren hasieran dagoela Pirinioak zeharkatzeko oinarritzko korridoreak europar markoan aitortzea: Atlantikoko Korridorea eta Mediterraneoko Korridorea. Europar agintaritzaren eskudunak behin betiko onartzea babesten dugu eta hauen garapen tenporala exijitzen dugu europar aurreikuspen eta eskakizunetara egokitua.
- **Merkantzia garraioari arreta berezia eskaintzea.** Sistemaren planifikazio bateratuak, une bakoitzean, garraio modu bakoitzerako ezarri eta bilatu behar diren lehentasunak definituko dituen arren, merkantzien trenbide garraioa kudeatzeko orduan nagusitu den arduragabekeriak behartu egiten gaitu garraio modu hori lehenesteko dugun behar uka ezina, ezinbestekoa baita ekonomiaren lehiakortasunerako.
- **Hurbiltasunerako kudeaketa.** Sistemaren kudeaketa integral jasangarria uztartu beharra dago garraio modu bakoitzaren kudeaketa autonomoarekin eta herrialdekako aplikazioekin. Ikuspuntu honetatik, EAJ-PNVk garraio herrialde sistemen parte hartzea eskatuko du hauek eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen:

- ❖ Euskal aireportu sistema Bilbo, Donostia eta Gasteizko aireportuak hartuko dituen, Iruñakoaz gain.
 - ❖ Euskal portuen sistema, agintaritze bakarraren azpian, Bilbo eta Pasaiako portuak hartuko dituen.
 - ❖ Euskal trenbide sistema, bere botere azpian euskal trenbide azpiegituraren kudeaketa eta azpiegitura horietatik joango diren hurbileko trenen ordenamendua eta hiriburuen arteko eta Hegoalde eta Iparralde arteko zerbitzua emango duen Abiadura Handiko Trena direlarik.
- **Azpiegitura hidrologikoak.** Estatuko Egitasmo Hidrologikoaren markoan interes orokorreko jotzen diren azpiegitura ezberdinak egiteko exigentzia. Zentzu berean, Estatuko Ureztapen Planean Euskadirentzat beharrezko jo diren azpiegitura ezberdinak egitea (funtsean Araban eta Nafarroan)
 - **Arreta berezia 2.0 azpiegiturei.** Sistemaren planifikazio integralean, kontuan hartu eta integratu behar dira garraiorako modalitate guztiak- bideak, trenbideak, portuak eta aireportuak- baina beharrezkoa da materialak ez diren azpiegiturei gero eta arreta handiagoa ematea, hau da azpiegitura digitalak edo 2.0 deitzen direnak. Ahaztea, baztertzea eta arreta txikiagoa ematea ondorio larriak ekarriko dituen huts egitea da bizi garen ekonomia eta gizarte globalizatuaren markoan.

5) FINANTZA SISTEMA ONA, GIZARTEAREN ZERBITZURA

Finantza sistema une honetan murgilduta gauden krisialdiaren eragile eta pizgarria izan zen. Eta guztiok onartzen dugu ezin izango garelako krisialditik irten finantza sistema bera erreformatu ezean.

Higiezinaren burbuila, espainiar kasuan, urte luzeotan finantza erakundeek hartu zuten gehiegizko finantza arriskuarekin batera, Espainiako Bankua moduko erakunde arautzaileak kontrol eta ikuskaritza lan eskasa egin du, eta hauek inguruabar guztiak egoera latza eragin dute. Baina egoera honek ez du mailegua sistema ekonomikora jariatzea eragotzi behar, bereziki enpresa txikiei eta partikularrei.

Finantza erakundeei, gure sistema ekonomikorako tresna oinarritzkoak diren neurrian, konpromiso eta inplikazio zuzena exijitu behar zaie egitasmo bideragarriak dituzten pertsonak eta enpresak laguntzeko orduan, enpleguaren sorrera ahalbidetzeko eta beraz krisialdi ekonomikoa gainditzeko. Ondorioz, EAJ-PNVk honako neurri hauek proposatzen ditu helburu hau lortzeko:

- **Finantza sistemaren lehiakortasun handiagoa.** Krisialdi ekonomikoan galdutako kaudimena berreskuratzeak (bereziki higiezinaren sektoreari lotutako mailegu eta kredituena) erakunde askori eta bereziki aurrezki kutxek exijitzen die hasitako berregituratze prozesuan sakontzea, dimentsio berria hartuta, birkapitalizatzea sendotasuna irabazteko, estres testak betetzea eta abar.... familia eta enpresei zuzendutako mailegua martxan jartzea izan behar da ekonomia funtzionatzen hasteko beharrezko baldintza. Zentzu honetan EAJ-PNVk babestu egiten du euskal kutxen bat egite ekimena eta izan daitekeen besteren bat ere, presazkoa izan ez arren, finantza sektorearen lehiakortasunari lagunduko dio eta funtzio soziala betetzen lagunduko du.
- **Gainbegiratzen handiagoa europar erakundeen aldetik.** Agerikoa da Espainiako Bankuaren kontrol funtzioek ez dituztela finantza erakunde askoren arriskuak mugatu. Zentzu honetan, kontrol funtzio oinarritzkoa hobetzeaz gain, finantza erakundeen gainbegiratze handiagoaren aldeko apustua egiten dugu Europar Banku Zentraletik eta Batzordetik.
- **Euskadira mailegu, banku eta aseguruaren eskumenak ekartzea.** Transferentzia honek finantza sistema propioaren sorrera ahalbidetuko luke, Euskadiren ardatz garapenera beharrezko babesa emateko. Finantza sistema honek neurri handi batean oinarritu beharko

da aurrezki kutxen euskal sisteman, Euskadiren kasuan sendotasun handia erakutsi dute finantza sistemaren krisialdian.

6) EKONOMIAREN ETA AURREKONTUEN EGONKORTASUNA

Defizit publikoaren eta zor publikoaren kontrola politika ekonomikorako aldagai estrategiko bilakatu da. Merkatuak kontu publikoen desbideratzei adi begiratzen diete eta prest daude europar esparruan hartutako eta Egonkortasun eta Hazkunde Ekonomiko Planetan arautzen diren konpromisoak betetzen ez dituztenak zigortzeko. Gobernatzeko ekonomiko sendoagoa ez dagoen bitartean eta aurrekontu politikari malgutasun handiagoa emango dion gobernatzeko ez dagoen bitartean, defizit publikoa betetzeak ala ez betetzeak markatuko du ekonomia baten sendotasunaren eta ahultasunaren arteko lerroa, edo ekonomia horren sinesgarritasunaren edo sinesgarritasunik ezaren arteko lerroa.

Hortaz, ezinbestekoa da egonkortasun makroekonomikoaren eta aurrekontuen egonkortasunaren aldeko apustua egitea, lehenengo eta behin, krisialdiaren sakontzea ekiditeko, eta bigarrenik, krisialdia gainditzea ahalbidetzeko. Aurrekontuen egonkortasunik gabe, ez da egonkortasun ekonomikorik izango.

Epe labur eta ertainera, defizitarekiko dauden konpromisoak betetzea baino beste erremediorik ez dago, Estatuko Administrazio Publikoen kasuan BPGaren % 4,4an ezartzen da 2012 urterako eta %3an 2013 urterako.

Hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak kontuan izanda, eta horiekin batera zerga bilketarena (zerga sistemaren erreforma integrala noiz egingo zain), Estatuko Aurrekontu Orokorrek eta beste erakunde publiko batzuetakoek murrizketak eta sakrifizio handiak sartu beharko dituzte hainbat gastu politiketan.

Baina murrizketa hauek ezin dira edonola eta edozein prezioan egin . Gobernuak kenkariak kentzearekin, inbertsioen murrizketekin, funtzionarioen soldatak murriztearekin eta pentsioen izoztearekin , gastu politikan goitik beherako biraketa egin zuen 2010eko maiatzetik aurrera, gastu publikoaren aldetik egin diren sakrifizioak ez dira gelditu. Eta hori egiten ari dira defizit publikoa kontrolatzeko dauden exigentziak kontuan hartuta, baina era desordenatuan eta planifikaziorik gabe. Horrela, hasiera batean gutxi gora behera inproduktiboak ziren gastuen murrizketak zirenak, orain oinarrizko gizarte politika askoren muinera iritsi dira eta suposatzen egiten dute garapenerako ezinbestekoak diren lan publikoetako kontratazioak geldiaraztea. Gaur egun, premiazkoa eta ezinbestekoa da erreforma. Gastu publikoaren murrizketak behar handiena duten pertsonen eta berreskuratze ekonomikoari eragitea ekidin beharra dago.

Testuinguru orokor honetan, EAJ-PNVren aldetik ezinbesteko jotzen dugu gastu publikoaren arrazionalizatzea eta lehenestea, honen eraginkortasuna eta efizientzia bilatuta. Gainera, defizit publiko mailak eta gastu publikoaren lehentasunak ezarrita, zerga sistemak bermatu behar du gastu lehentasunak betetzea ahalbidetuko duen finantzaren nahikotasuna. Oinarrizko irizpide gisa aurrerapena, ekitatea eta gizarte justizia izango dituen zerga sistema.

EAJ-PNVk hurrengo lerro nagusiak proposatzen ditu egonkortasun makroekonomikoa eta aurrekontuen egonkortasuna lortzeko:

- **Administrazio guztien konpromisoa.** Planteatzen den zerga publikoaren finkapenak administrazio publiko guztien konpromisoa eta lankidetzaren behar du. Guztiek gastua eusteko behar duten ahalegina egin behar dute beren helburu eta konpromisoa bete ditzaten.
- **Erakunde arteko lankidetzaren bakoitzaren eskumen markoa errespetatuta.** Erakunde arteko lankidetzaren xahutze eta gastu publikoaren bikoizketak ekiditea, eraginkortasuna bilatzea, baliabide gutxiagorekin gehiago egitea, horiek egon behar dute administrazio publiko guztietan egin behar den gastu publikoaren erreforma barruan. Erakunde maila bakoitzak lege markoaren arabera bere ardurapean dituen eskumenak garatu behar ditu , Administrazio zentraletik hasita, ministerioak sortzeraino heldu baita inolako eskumenik ez duen gaien inguruan. Bidea da lankidetzaren bakoitzaren arduratik abiatuta , eta inoiz ere

inposizioa eta Estatuko Administrazio Zentralaren garrantzia Autonomi Erkidegoen, Foru Aldundien edo Toki Erakundeen gainean jartzea.

- **Gastu soziala eta inbertsioak lehenestea.** Murrizketek oinarrizko gizarte politikari (pentsioak, langabezia, mendekotasuna, hezkuntza...) eta produktibotasuna irabazteko behar diren neurriak (berrikuntza, ikerkuntza, industriari babesa eta abar) eragitea ekiditea.
- **Defizita duten enpresa publikoen premiazko saneamendua,** sektore ekonomiko berean kokatuta dauden enpresa publikoekiko konpetentzia desleiala ekiditeko. Kontrol mekanismoen hobekuntza.
- **Zerga arloko lankidetzak, gure eskumenak eta Kontzertuaren berezitasuna errespetatuta.** EAJ-PNV zerga sistemaren erreformarako eztabaida eta erabakietan parte hartzeko eta laguntzeko prest dago, baina beti gure zerga autogobernuarekiko errespetu zorrotzaren oinarrizko printzipiotik abiatuta, Estatuan bost Ogasun daudelako (Euskadiko Autonomi Erkidegoko hiru Herrialdeetako Foru Ogasunak eta Denon Herrialdeetat jotzen dena) eta bakoitzak du bere gaitasun arautzailea.
- **Zerga iruzurraren kontrako borroka irmoa.** Zerga iruzurra helburu duten zerga eta finantza ingeniariaren tratamendua modifikatzea eta gogortzea. Zigor kodea erreformatzea Ogasun Publikoaren kontrako delituetarako zigorrak gogortzeko eta "dolo ebentuala" figuraren aplikazioa mugatzeko, sarritan erabili ohi den ihesbidea baita epaimahaietan erabiltzeko, zeinetan iruzur egiten duten. Paradisu fiskalen inguruan jardutea, bereziki Estatuko mugetan daudenak, besteak beste Gibraltar eta Andorra. Lege Konkurtsalaren modifikazioa, horretara bilduko direnak ez dezaten zerga zorrak kitatuzat jo ostean beren jardura ekonomikoari berrekin.
- **Tributu sistemaren erreforma.** Ondarearen gaineko zerga edo dirutza handien gaineko zergak justizia soziala handitzen laguntzen dute eta gehien eta gutxien dutenen arteko ezberdintasunak krisialdian handitu diren sistema orekatzeko. Dena dela ez dugu demagogian erori behar. Hori ez da nahikoa izango. Etikoa eta estetikoa bai, baina eznaikoa. Erreformak sakona behar du izan eta aurrekontuen egonkortasunerako eredia ixteko elementua izan behar du. EAJ-PNVk hurrengo neurri hauek aztertzea proposatzen du:
 - ❖ Kapital errenten tratamendua modifikatzea eta beronen tributazioa, gutxienez Sozietateen gaineko Zergara hurbiltzeko.
 - ❖ Estatuan SICAV-en erregimenaren modifikazioa.
 - ❖ Eliteko kirolarien eta egoiliar ez diren pertsonen errenten zerga tratamendua modifikatzea.
 - ❖ Finantza transakzioen gaineko europar tasa sortzea, beti ere honek espekulazioko kapitalen mugimenduei eragiten badie eta bere kostea hiritarren eta enpresa txikien oinarrizko eragiketara barreiatzen ez bada.
- **Gure tresna fiskalak gizarte politika zehatzei lotuta.** Zahartzera eta mendekotasunera uztartutako estaldurak bermatzeko Fondoaren sorrera baloratzea. Fondo hau ekarpen berriekin elikatuko litzateke eta helburu bat izango lukete, etorkizunean hiritargoarentzat arreta publikoa bermatuta egon dadin, halako beharizanik egon ezker. Kudeatzea zerga administrazio bakoitzaren ardurapean egongo litzateke eta gauzatzea PFEZren gaineko errekareru bereziaren bidez egin liteke.

7) INGURUMENAREKIKO BATERAGARRIA IZANGO DEN GARAPENA

EAJ-PNVk apustu irmoa egiten du etorkizuneko gizartearen alde. Garapena, aurrerabidea, berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkundea, ingurumenaren zaintza, berreskuratze eta biziberritzeko oreka arduratsuarekin batera eman behar delarik. Eguraldiaren aldaketaren eronka handiari ekiteko, beharrezkoa da bultzatu behar den gizarte eta ongizate ereduaren

aldeko apustu irmo eta arduratsua, eta horretan ingurumenaren babesaren eta garapen sozio-ekonomikoaren arteko garapena era etengabea eman behar da.

Energiarena da ingurumenarekiko harreman handia duen arloa. Mundu mailako energia eszenatokia eraldaketa sakonetan dago. Europa horren lekukoa da eta ondorioak sufritzen ditu. Atzean geratu dira energia merkearen garaia. Energia hornikuntza arazoak gero eta gehiago ditugu gure eguneroko bizimoduan. Inportazioko energiarekiko mendekotasunak eta prezio altuek kezkatu egiten gaituzte eta kasu batzutan itogarriak dira. Nagusitu egin da gizartearen zati handi batean eguraldiaren aldaketaren aurrean gaudelako kontzientzia eta kontuan hartzen dugu orain arte izan ditugun eredu energetikoen ondorio direla. Ezinbestekoa da politika energetiko berria. Kultura energetiko berria ere beharko dugu aldaketa batzuk ekarriko dituen. Aldaketa horiek ez dira bat ere errazak orain arte izan ditugun bizimoduetan.

Energiaren alorrean, Espainiar estatua ez da salbuespena. Guztiz kontra, energiarekiko duen mendekotasuna kontuan hartuta, eta epe ertain eta luzera energi politika egonkor eta argirik ez duela jakinda. Europarako Energi Politikaren hiru helburu handiek izan behar dute Estatuko energi politikaren helburu nagusiak:

- Hornikuntzaren segurtasuna handitzea.
- Ekonomiaren lehiakortasuna eta energia eskuragarriaren hornikuntza bermatzea.
- Ingurumenaren jasagarritasuna sustatzea eta eguraldiaren aldaketari aurre egitea.

Testuinguru honetan, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du hurrengo lerrootan lan egingo duela ingurumen arloan:

- **Kyoto Protokoloaren betepen zorrotza.** EAJ-PNVk protokolo honen aldeko apustua egiten du, eta era berean, ezinbesteko jotzen du protokolo honen gainbegiratze eta jarraipena. Zentzu honetan, garraioak, industria eta egoitza esparruetan CO2 eta negutegi gasen jaulkipena murrizteko ekimenak sustatuko ditu.
- **Energia berriztagarriak.** Energia berriztagarrien aldeko apustua, europar markoan kanpoarekiko hain mendekoa izango ez den energia mix-ean parte hartuta.
